

INFORMAZIO OHARRA: ESTATISTIKA ETA KONTABILITATE DEKLARAZIOAREN BIDALTZEKO EPEA UZTAILAREN 20RA ARTE LUZATZEN DA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez (COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena), zenbait neurri hartu ziren birusa prebenitzeko eta geldiarazteko, eta egoera horrek osasunean, gizartean eta ekonomian duen eragina arintzeko. Arau horren hirugarren xedapen gehigarriak sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epe-mugak gelditzea eta epeak etetea ezarri zuen.

Ondoren, alarma-egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak 9. artikuluan ezarri duenez, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, etendako administrazio-epeen zenbaketa jarraituko du, edo berriro hasiko da, alarma-egoera eta haren luzapenak indarrean dauden bitartean onetsitako lege-mailako arau batean hala aurreikusi bada.

Aurrekoaren arabera, eta 2020ko apirilaren 30ean www.euskadi.eus webgunean argitaratutako informazio-oharrean ezarritako irizpideekin bat etorriz, Finantza Politikako Zuzendaritzak jakinarazi du, alarma-egoeraren adierazpenaren eta epeen zenbaketari berrekiteko dataren artean igarotako egunak kontuan hartuta, urteko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko uztailaren 20an amaituko dela.